

TXINGOAN JOLASEAN

Txingo, *txingoan* edo *txingoka* ibiltzea: oin bakar baten gainean saltoka ibiltzea, bestea airean edukita. Hiztegietan datozen sinominoak (Labayru, UZEI eta Harluxet): *txangika*, *xingilka*, *oinka-oinka*, *kisketean*, *intxintxorrean*, *trinkitin*, *xingilika* eta *xingili*.

Txingoka egiten diren bi jolas jaso ditugu **Ahotsak.eus** proiektuan. Bietan zenbakiak eta laukiak marrazten dira lurreen, baina jolas bakoitzak bere berezitasunak ditu:



oinarekin zapaldu. Lurrean marraztutako laukiek gurutze forma hartzen dute, eta gurutzea sortzen den lekuan bi

- **Harri-harrika:** Txingo jolas ezagunena. Objektua -harri txiki bat, normalean- eskuarekin jaurtitzen da lauki barrura: lehengo 1 zenbakira, gero 2.era, ondoren 3. era... horrela zenbaki guztiak igaro arte. Txingoan joanda batu behar da harritxoa, aldiro-aldiro, eta bidean ezin dira laukietako marrak oin

hankak jartzen dira lurreen: lauki bakoitzean oin bat. Buelta emateko lekuan atsedeen-lekua egon daiteke.

- **Txingor-gainean edo txindurrika:**

Objektua -kaxa biribil zapal bat, normalean- 1 zenbakian ipintzen da, eta handik aurrera ostiko txikiak eman ez eraman behar da, zenbakiz zenbaki. Kaxa ezin da marren gainean geratu, eta oinarekin ere ezin da marrarik zapaldu. Lurrean marraztutako laukiek ez dute gurutze formarik, eta bukaeran atsedeen-lekua dago, buelta ematen den tokian.



Hainbat izen erabiltzen dira txingo jolasak izendatzeko. Deba bailaran *txingoka* edo *txingoan* izenez gainera, hauek ere jaso ditugu: Aretxabaletan *harri-harrike* eta *txantxikurke*, Elgoibarren *txingor-gaiñian* (edo *txingorriñian*), Bergaran *txindurrika* eta *txantxirrika*, Eskoriatzan *txantxixuske*, Antzuolan *txintxurruka*, Arrasaten *losa-losaka* eta *hanka-koka*...